

## AINHOA LASA

Deskribapena: Kike kalean Emun-eko Ainhoa Lasarekin elkarrizketan ageri da.

Kike: “Ainhoa askotan gertatzen da euskaldunon artean ere erderaz egiten dugula elkarrekin, zergatik?”

Ainhoa: “Seguru asko ohituragatik, parte haundi batian ezautu dugulako erderaz edo gaztelaniako joera hartu dugulako edo dana dalakoa. Eta beste parte batian, aurriritziz beteta gaudelako. Bai, autoestima baju xamarra daukagu eta aurriritzi hoiak bueno bete itteigie, ez? Ba, izan leike gauza inportantei buruz hitz egiteko, dala bileratan edo lagunekin ere bai edo diru kontuetaz hitz egiteko, izan leike oain arte ezagutzaz behintzat erdalduna izan dan leku batea jutea eta bueno, zuzenian erderaz jotzea dendetara edo kaleko jendiai erderaz ittea edo itxuragatik, ez dakit dotoria dalako edo ez dalako, baina batzuk badirudi ez daukatela hola itxura euskeraz aitzeko modukoa.”

Kike: “Nik badut euskaraz aitzeko itxura?”

Ainhoa: “Mmm, ez dakit ba, eh?”

Kike: “Eta batzutan gertatzen da euskeraz hasi eta erderaz bukatzen dugula!”

Ainhoa: “Bai, nik uste batzutan ezin batzun aurrian gaudenian ba, igual zerbait ez dakigunian euskeraz azaltzen, ezina dauzkagun euskaraz uste det gaztelania edo frantsesa erabiltzen degula eta hor, gero, kosta iten zaigu bueltatzea, ezta? Ondo dago, hitz batzuk erabiltzea behar baldin badittugu baina jakin euskeraz ari naizela eta euskeraz segitzea, ezta? Ta hori kosta egiten zaigu asko.”

Kike: “Eta zuek zer proposatzen duzue egoera hauetan euskera gehiago erabiltzeko?”

Ainhoa: “TELP tailerrak dia hitz egiteko tailerrak, dauzkagun aurriritziak edo horiek desmontatzeko argudio edo argumentu berriak eraikitzen saiatzen gera, ez? Bai ordun, hor saiatzen gera bakoitzak bueno, ba, bere portaera aztertzea, zer dakagun, ze rekurso personal dauzkagun eta horiek potentziatzen saiatzen gea.”

Kike: “Beraz esan genezake Euskal Herria euskaldun ikusezinez beteta dagoela.”

Ainhoa: “Beteta baino beteta. Bai, bai, ikusten da, eh, ba, kuadrilla barrutan edo bueno, leku berri batea goazenian, ikusten degunian jendia erderaz ai dala, gu normalian momentuko horta makurtzen gea, ez? Momentu hortan erabiltzen ai dan hizkuntzara eta posible da handikan hilabete batzuta edo urte batzuta jakitea “Ara! Euskaldunak zian!” Edo bueno, edo oain dala hogeit urte ezaututako jendiai ez diot aitortzen, ezta? Bide hortan edo urte guzti hauetan in dun ikasketa prozesua, ja erdalduntzat katalogatu nun duela hogeit urte eta bere horretan segitzen du orain e bai, ez? Eta bueno bai, ustet ikusezin pilo bat daudela.”